





# *Ibarretxe da baietza*



eman botoa

**EUZKO ABERTZALEAK**

## urteurrenak

### Babes ofizialeko etxebizitzak

■ 64. zenb.  
(1990-05-17)

Gobernu batzordeak Altamirako promozio publikoko 41 etxebitzaren adjudikazioa eztabaidatu zuen. Etxebizitza horiek lortzeko, 521 eskaera aurkeztu zituzten, baina kasu konkrituak kontuan izanda, 362 lagunek soilik zuten aukera etxea lortzeko. Eskaera bakoitzari puntuazioa eman zioten eta behin-behineko zerrenda osatu zuten, eta gero Jaurlaritzak adjudikatu zituen, erreklamazioak kontuan hartuta.

### «Arrasate nire herria»

■ 64. zenb.  
(1990-05-17)

Iñigo Ramirez Eskoriatzako Irakasle Eskolako irakasleak Arrasate nire herria ikasunitatearen materiala entregatu zuen udal-letxean, horrela, zortzi hilabeteko lanari amaiera emanez. Lan horren baitan, Arrasateko geografia, ekonomia, historia, artea, etnografia eta beste hainbat arlo landu zituen. Halaber, herriko ohiturak, usadioak eta ipuin zaharrak ere bildu zituen, eta

liburu bat argitaratzeko asmoa erakutsi zuten.

### Azoka plaza egokitzeko asmoa

■ 64. zenb.  
(1990-05-17)



Jose Antonio Murumendiaraz arrasatearraz azoka plazaren bideragarritasun txostena prestatu zuen. Udalak eskatu zion txostena egiteko, eta Jose Antonioren ustez, azokak bazuen etorkizunik, baina berrietasunak egin behar ziren; jakiak sartu eta ateratzeko bideak egokitu, goiko etxeen saneamenduak desbideratu eta higiena bermatzeko neurriak hartu, beste batzuen artean. Horretarako, udalak hiru milioi inguru inbertitu beharko litzuzke urtero.

## besteek esana



Ondo deritzot Goiena Telebistak nola hartzen nauen, beti nire esana bikoizten badute ere, bailarako telebista honek soilik euskaraz emititzen baitu. Euskararen erabilera indartzea onartu eta ulertzen dut, baina era berean zera uste dut: elebidunak diren emisioak aproposagoak izango lirateke, bailarako telebistan esaten dena jende gehiagok ulertu ahal izango lukeelako».

Rafael Gomez  
AL ANDALUS elkarteko  
presidentea  
**El País**

(2001eko maiatzaren 9a)

## aurkibidea

- Lehen begiratu . . . . . 3
- Asteko hitzorduak . . . . . 4
- Inkesta . . . . . 5
- Astearen errepassoa . . . . . 6
- Orain eta hemen . . . . . 7/8
- Hauteskundeak . . . . . 10
- Txutxumutxuak . . . . . 11
- Asteko gaia . . . . . 16/17
- Kirolak jokoan . . . . . 18/22
- Auzoz auzo . . . . . 22
- Kulturaren txokoa . . . . . 23/24
- Uhinetan barrena . . . . . 25
- Foto zaharra . . . . . 26





**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate  
Komunikabideak) Olatora kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net  
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitatea:** Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Disolnua:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemaldea:** Lorea Agiriano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odirozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28).  
© ARRASATE PRESS. Tirada: 6.500. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Franko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

 ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Auzoindaren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## ZERBITZUAK

### Eritxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Igalatorioa . . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) . . . . . 943 79 39 00  
(emakumeak) . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

### Larrialdiak

SOS Deiak . . . . . 112  
Gurutze Gorria . . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57

### Anbulatorioak

Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
Astelehenetik  
Barikura . . . . . 14:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
asteburu eta  
jai egunetan . . . . . egun osoa  
Arrasate  
Astelehenetik  
Barikura . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria . . . . . 943 03 52 50  
• Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea . . . . . 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak . . . . . 943 03 53 11  
Aretxabaleta . . . . . 943 79 74 58  
Aramaio . . . . . 945 44 53 40

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

### Ertzaintza

Arrasate . . . . . 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . . . 088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
. . . . . 943 79 78 44  
. . . . . 943 79 76 78

### Garraioak

Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburategia

Monterron . . . . . 943 77 01 05

## MEZAK

### San Joan parrokia

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko eliza

<b>Zapatua</b>	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
<b>Domeka</b>	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

### Uribarri parrokia

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

### San Andres eliza

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

### Santa Teresa eliza

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

### Santamañako eliza

<b>Jalegun bezpera eta zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

## ander lipus

Maiatzaren 11n, Ander Lipus aktoreak *Minutu Bakarra* izeneko antzezlan eskainiko du

Jaizale tabernan, 23:00etan.

## kinto ospakizunak

La Mercedeko ikasle ohiek irteera egingo dute maiatzaren 19an. Izena emateko, zozate Lore lurrindegira. Bestalde, 52ko kintoek ospakizuna egingo dute egun berean; 12:30an meza izango dute, eta 14:30an,

bazkaria. Izena emateko, deitu Angel Dominguezi, Luis Gutierrez, Julio Marañoni, Paco Boneti edo Rafa Fernandez, maiatzaren 14a baino lehen.

## lan bioenergetikoa

Gorputz lan bioenergetiko taldea eratu gura du Arrasate Yoga Elkarteak. Argibideetara

ko edo parte hartzeko, deitu 616 96 57 95 telefonora.

## areto dantzak

Ekin Emakumeak elkarteak hasiberrienda-ko areto dantza ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 16tik ekainaren 20ra izango da, eguazteno, 15:00etatik 16:30era. Argibi-

de gehiagorako edo izena emateko, jo elkar-tearen egoitzara, Pablo Uranga 4ra, edo deitu 943 77 12 28 telefonora.

## donostiara bidaiak

Donostiara irteera antolatu du Ekin elkar-teak. Aquariuma ikusi eta gero Lasartera joango dira, Txillida-Leku bisitatzen. Han bertan bazkalduko dute. Horren ondoren, Donos-

tira joango dira arratsalde-pasa. Izena emateko, jo Ekinen egoitzara maiatzaren 23a baino lehen.

## txatxilipurdiren oharrak

Eguzki-Laru prestatzeko jendea behar du Txatxilipurdik. Izena eman gura izanez gero, maiatzaren 15a duzue azken eguna. Deitu 943

77 17 37 telefonora eta galdetu Rebekagatik edo Jonegatik.

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

### Egubakoitza, 11

- Amezua, Santa Marina

### Zapatua, 12

- Zabala, Zarugalde

### Domeka, 13

- Ruiz, Magdalena

### Astelehena, 14

- Morales, Araba

### Martitzena, 15

- Azkoaga, Ferrerías

### Eguaztena, 16

- Azkoaga, Iturriotz

### Eguena, 17

- Corcuera, Aranbarri

## DELINEANTEA

Arrasateko Udalak, DELINEANTEA lanpostua, errelebu modalitatean, aldi baterako bete nahi du:

**Eskaintzen da:**  
5 urte inguruko lan-kontratu (%77ko lanjardunean)  
ARCEPAFEko 12. ordainketa maila.

**Baldintzak:**  
Euskara: 2. HEren pareko jakintza.  
LHI delineazio espezialitatean.

**Aurkezteko epea:**  
2001/05/12tik 2001/5/22rarte, biak barne.

**Oinarriak:**  
Udaletxean jaso daitezke.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Sails

# Musakola independentea, bai ala ez?

Jai batzordeak auzoaren askatasunaren alde egiteko sinadurak bilduko ditu.



**Jose Benito Bravo**  
(Erretiratua)

Ez zait axola, ez dut uste desberdintasun handirik egongo zenik.



**Carmen Molpeceres**  
(Etxekoandrea)

Bai, noski, Arrasateko auzo zaharrena delako.



**Idoia Axpe**  
(Langilea)

Bai, duda barik, apartekoak garelako.



**Victor Dueñas**  
(Erretiratua)

Bai, jendeak eskatzen badu, zergatik ez.



**Ismael Etxeberria**  
(Langilea)

Ez naiz Arrasatekoa, baina nire ustez hori Musakola-ko jendeak erabaki beharko luke.



**Idurre Aranguren**  
(Langilea)

Eurek horrela gura badute, zergatik ez.



**Agurtzane Altuna**  
(Ikaslea)

Jendeak hori eskatzen badu, aurrera.



**Esther Agirreolea**  
(Langilea)

Kanpotarrak gara, baina auzoak hori eskatzen badu, bai, noski.

 **Txitxinpe**  
Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Otarateko hotz eta beroak  
Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

 **Lore**  
• Lurrindegia • Kabina •  
• Fotodepilazioa •  
Olarate kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

**MADINA ZURAK**  
Aroztegia  
Olak, aglomeratuak,  
kontratxapatuak, tablexa, ateak,  
egurrezko leihoak, oin-inguruak,  
zangoak, aroztegiko osagarriak.  
Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78

**ZUBIZARRETA**  
**LANTEGIAK**  
Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

## USTEAK USTE

### Lotsarik ez!

**O**raingo astean bertan egunkari batean irakurri dut Basauriko espetxean dagoen preso batek zigorra jaso zuela bere ziegaren barneko kartel baten -gatzelania hutsean zegoena, jakina- Euskal Herrian Euskarazeko pegatina bat jartzeagatik. Dena dela, presondegien barnean gertatzen diren -eta gehienak jakiten ez ditugun- bidegabekeriaren aldean, Basaurin jazotakoa agian ez da hain larria. Bestalde, euskararen gaineko mespretxu edo sentimendu are txarragoek egunotan kalean bizi dugun egoera gogorarazi didate. Hain zuzen ere, duela gutxi, Fraga Iribarne delakoak jaurtitakoak, euskara museo baten utzi beharko zela esanez, edo Arrasatetik gertu, Alfonso Alonsoren udalak Gasteizen bertan euskara irakasten duten euskaltegiei udal dirulaguntzak ukatu izana, euskararen eta ingelesaren edo alemanaren irakaskuntza parekatu nahian, 'lingua navarrorum atzerritarra izango balitz bezala hartuz. Zer aurpegi!

Iker Barandiaran

## astea bi hitzetan

### ■ Gaztetxeko konponketak

Gaztetxeko dinamika berreskuratu nahian dabilen herriko gazte talde batek Ospital Zaharreko lokalean zenbait konponketa egiteko eskaera egin dio udalari. Gaztetxearen kokapen hori behin-behinekoa izan arren, hila-bete batzuk han jarraitu ahal izateko beharrezkotzat jotzen dituzten lanak dira, konponketa orokorreko lanak, alegia. Gobernu Batzordeak onartu egin du eskaera. Ia 700.000 pezeta egokituko ditu lanotarako.

### ■ Istripua Musakolan

Egubakoitzean Mercedes markako furgoneta batek neska gazte bat harrapatu zuen Musakola auzoan. Zebra bidean harrapatu zuen, baina, lekukoaren esanetan, semaforoa oinezkoendako gorri zegoela hasi zen neskatila bidea zeharkatzen.

### ■ Kale bilkura isila

Domekan izandako atentatua gaitzesteko, kale bilkura izan zen Mondragoen. Lehendakariak egindako deiari atxikiz, zenbait herritar eta udaleko langile herriko plazan elkartu ziren astelehenean ordu laurdenez. Betiko moduan, isiltasunean adierazi zuten euren gaitzespena.

Zauri larriekin eraman zuten neskatila ospitalera eta oraindik ere hantxe dago, zainketa berezien unitatean.

### ■ Hazkunde handia

MCCko aholkularitza taldeak, LKS-k, 4.270 milioi pezeta fakturaztea espero du aurten. Aurreikuspen horiek betez gero, iaz baino %22 gehiago fakturatuko du LKSk.

### ■ Metalaren hitzarmena

Egunotan, metal alorreko enpresek lan hitzarmena sinatzen dihardute. Hitzarmenaren helburua da urte-tik urtera soldata hobeak lortzea, baja hartzeko orduan baldintzak hobetzea eta lanorduak murriztea, besteak beste. Mondragoen, Gameik, Polmetasak eta Gelmak sinatu berri dute hitzarmena. Gamei enpresan, esaterako, bi urterako

hitzarmena sinatu dute, hitzarmen probintzialaren moduan. Soldaten igoera ere lortu dute, KPI gehi bost puntu, eta gainera, txandakako kontratua onartu dute. Horrek esan nahi du 60 urterekin erretiratzeko direnek soldataren ia %100 jasoko dutela. Eta, gainera, erretiratu den horren ordezkako lanpostu finkoa eskuratuko du.

Herriko beste enpresa asko oraindik hitzarmena aztertzen ari da.

### ■ Lanpostu gehiago

Mondragon Korporazio Kooperatibak 53.575 langile zituen pasa den urte amaieran. Horrek esan gura du iaz 6.714 lagunendako lana sortu zuela. Halaber, MCCko langileen %10 atzerriko lantokietan ari dira lanean, iaz baino 1.851 gehiago.




**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**  
**MEMESA**  
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

  
**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

## Xabier Zubizarreta intsumisioagatik epaitu dute

“Armadari laguntza ukatzearen” Xabier Zubizarreta epaitu zuten joan den egubakoitzean Donostiako Auzitegi Probintzialean. Espainiako Armadari soldadutza egiteko adinean zeuden gazteen zerrenda ez emateagatik izan zen epaiketa. Alkateak adierazitakoaren arabera, 95-96 eta 97. urteetan ukatu zituen Arrasateko Udalak zerrendak, 94. urteko osoko bilkura batean hartu baitzuen hori egiteko erabakia.

Epaia hiru aste barru aterako da. Fiskaltzak 18 hilabeteko inhabilitazioa eta isuna eskatzen ditu Arrasateko alkatearendako. Abokatu defentsariak, ostera, kargu barik libre uztea.



Alkatearen esanetan, “epaiaren beraren edukia baino, epaia bera egitea da bizi dugun egoera politikoaren adierazle. Eta, bi gauza adierazten ditu horrek: batetik, demokrazia falta dagoela. Izan ere, udal batek erakunde armatu batekin ez kolaboratzeko hartutako erabaki bat epaitzen ari

dira. Eta, bestetik, zazpi urteren ondoren horrelako batekin etortzeak erakusten du botere judizialak botere exekutiboan duen erabateko mendekotasuna”. Horrekin batera, salatu zuen euskal erakundeek eskuduntza falta dutela “gure arloetan erabakiak hartu eta praktikara eramateko”.

## Beste arrasatear bat kartzelara

Garzon epailearen aginduz, Amaia Arrieta gaztea kartzelara da martitzenaz geroztik. Mondragoetarrak bere burua aurkeztu zuen Auzitegi Nazionalan. Epaileak ETAKide izatea egotzi dio, baita ETA erakundearen partaide izateko jendea bilatzen ibiltzea.

Amaia Arrieta marxoaren 6tik ihesean zebilen, Haikako 16 kide atxilotu zituztenetik, tartean Igor Ortega bere mutil laguna. Garzon epaileak 18/98 izeneko sumarioan sartu du kasua, eta Haikarekin lotu du. Hain justu, Haikarendako kontu korronte bat zabaldu izana leporatu dio. Deklaratu eta gero, Soto del Realgo kartzelara eramán zuten.

Atxiloketa berri horren aurrean, Arrasateko ezker abertzaleak salatu du “azkenaldean Garzon epailearen aurrean jartzen den euskaldun orok espetxea duela “sari” gisa. 18/98 sumarioak ez duela ez hanka ez buru eta, gainera, Garzonek gura duenera arte zabaltzen duela, hau da, sumario horren barruan edozer eta edozein sartzen du”.

## Hilabete erdi baino gehiago greban

Hemeretzigarren eguna eman dute greban garbiketako langileek. Eta, oraindik ere, egoerak berdín-berdín jarraitzen du. Martitzenean sindikatuetako bozeramaileak adierazitakoaren arabera, ez da inolako aurrerapenik egin Gipuz-

koako garbiketa sektoreko hitzarmenaren negoziazioetan.

Eta, dagoeneko igartzén hasi da grebaren eragina zenbait esparrutan: adibidez, Aita Menni ospitalean, zenbait ikastetxetan eta herriko kirold-

gietan. Hori bai, gutxieneko zerbitzuak betetzen ari direnez, kiroldegietan izan ezik, bestela normaltasunez ari dira lanean. Kiroldegien kasua bestelakoa da, ez baita beharrezkoa gutxieneko zerbitzuak betetzea.

### TEKNIKARIA

Arrasateko Udalak, TEKNIKARI bat kontratatu nahi du baldintza hauen arabera:

**Egitekoak:**

Prozedura administratiboak eta dokumentuak aztertu, normalizatu eta manualizatu, eta expediente sistema informatikoaren administratzaile funtzioa bete.

**Eskaintzen da:**

2 urte inguruko lan-kontratua.  
ARCEPAFEko 13. ordainketa maila.

**Baldintzak:**

Euskara: 3. HE pareko jakintza.  
Erdiko edo goi mailako unibertsitate titulua.

**Aurkezteko epea:**

2001/5/12tik 2001/5/22rarte, biak barne.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

### 2 PEOI

Arrasateko Udalak, 2 PEOI lanpostu aldi baterako bete nahi ditu:

**Eskaintzen da:**

- 1) Lan-kontratua, 4 urte ingurukoa (%77ko lanjardunean).
  - 2) Ordezteko lan-kontratua, 12 hilabete ingurukoa.
- ARCEPAFEko 6. ordainketa maila.

**Baldintzak:**

Eskolatze agiria.

**Aurkezteko epea:**

2001/05/12tik 2001/05/22rarte, biak barne.

**Oinarriak:**

Udaletxean jaso daitezke.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

## Egituraketa berria Arizmendi Ikastolan



Arizmendi Ikastolak 3.300 ikasle batzen ditu gaur egun. Kopuru hori kontuan hartuta, egituraketa berria ezarriko du datorren ikasturtean. Halaxe jakinarazi zuten Arizmendiko

ordezkariek martitzenean Aretxabaletan egindako prentsaurrekoan.

**UNITATE AUTONOMOAK**  
Hezkuntza mailen arabera

gingo da antolaketa, bost unitatetan lan eginez: Haur Hezkuntza, Derrigorrezko Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta beste ekintzak. Prentsaurrekoan adierazita-koaren arabera, unitate guztiak autonomoak izango dira eta antolaketa propioa izango dute. Horrez gain, Arizmendi MCCn sartu dela ere jakinarazi zuten. Izan ere, joan den apirilaren 25ean hartutako erabakia berretsi zuten. Hortaz, hemendik aurrera, Arizmendi MCCko bazkide izango da.

## Garaia egitasmorako bidea egiten

Mondragon Korporazio Kooperatibak lankidetzaren hitzarmena sinatu du Massachusetts Institute of Technology (MIT) erakundearekin. Hitzarmenaren helburua nagusia da MCCren Zientzia eta Teknologia Plana, Garaia eta Mondragon Unibertsitatearen plan estrategikoa gara-

tzeko MITen babesa izatea. Oro har, hitzarmen horrek lan-landuko diren esparru nagusiak hauexek dira, besteak beste: sortzen ari den teknologia eta MITen kudeaketa-rako baliabideak MCCra bideratzea; MCCko arduradunendako mintegiak antolatzeko; ikerketetan MITeko ira-

kasleak aholkulari izatea bideratzea; MITeko ikasleak MITen bertan edo MCCko enpresetan kokatzeko modurik onena aurkitzen eta aztertzen laguntzea MCCri, eta MCCko enpresek dituzten heziketa edo garapen beharrei erantzuteko MITeko programak identifikatzea.

## Zergak maiatzetik aurrera ordaindu behar dira

Orain arte, zergak irail hasieran ordaindu izan ditugu, baina aurrean epe hori aurreratu egin dute, eta ordainketa datorren astetik aurrera egin ahal izango da. Zergak ordaintzeko hila-bete eta erdi izango dugu, maiatzaren 15etik uztailearen 2a arte.

Aurrerapen horrek Gipuzkoa osoko udalerritan eragina izango du, eta datorren urteari begira badirudi epealdi berri hori gorde egingo dela. Bailarako udalak epe berri horren inguruan herritarrak ohartarazteko ahaleginetan dabilta, eta

ordainketa Kutxan helbiderratu dituzten herritarren kasuan, karguak ekainaren hasieran hasiko dira. Ordainketa helbiderratu barik dutenen kasuan, ordainagiria etxera helduko zaie, eta ordaindu ezean, abisua ere etxean jasoko dute.

## Musakolan poliki

Udaleko langileek oraingo astean ipini dituzte Musakolan ibilgailuen abiadura moteltzeko bandak. Errepide erdia betetzen duten bi banda ipini dituzte eta alde-rik aldeko beste bat ipintzeko dira. Al-biste hau idaztean, oraindik alderik aldeko banda jartzeko materialaren zain zeuden, hortaz, ipini barik zegoen.



**ELKARTASUN**  
**EGUNA (III)**

### Usoa eta elurra (II)

**Behin, neguko arratsalde hotz batean, usoak eta hontzak elkar topo egin zuten pinu baten adarrean.**

**Usoak hontzari begiratu eta hala galdegin zion :**

**- Zuk ba al dakizu elur maluta batek zer pisu duen?**

**- Batere ez, elur maluta batek ez du batere pisurik.**

**Usoa pentsakor gelditu zen eta handik puska batera:**

**- Duela gutxi gertatu zitzaizkidan kontatu behar dizut, ba. "Haritz baten adar sendo batean nengoen lasai**

**asko atsedean hartzen. Hala-**

**ko batean, elurra hasi**

**zuen goitik behera. Ezin**

**inora joan eta ez aspertze-**

**arren ni nengoeneko**

**adarrean metatzen ziren**

**elur malutak kontatzeari**

**ekin nion: bat, bi,**

**hiru.... poliki-poliki, baina**

**etengabe elurra pilatzen**

**zihoan.**

**Ehun eta bat mila berrehun**

**eta hogeita hamabi milioi**

**ehun eta bi mila**

**zazpiehun eta hirurogeita**

**hamazazpi elur maluta kon-**

**tatu nituen nire**

**adarrean. Eta hurrengo elur**

**maluta, aurreko guztiak**

**bezain txiki eta arina,**

*Beinat Arzadun.*



**MONDRAGON UNIBERTSITATEAN**

hezkuntzaren erdigunea

**ZU** zara



**m** **MONDRAGON**  
**UNIBERTSITATEA**

**HITZALDIA**

**ZERGATIK IKASI**  
**MONDRAGON UNIBERTSITATEAN**

M.U.ko Errektorea den Javier Retegi Jaunaren eskutik

*"Mendeberri"*  
heziketa proiektua

*Unibertsitate Kanpus*  
kontzeptu berria

*Gizarte eraldaketa*  
eta eskualde garapena

Javier Retegi Jaunak, zentruetako zuzendari eta orientatzaileei eta irakaskuntza ertainetako ikasle eta gurasoei zuzendutako hitzaldia eskeinito du. Gazteak etorkizunari begira orientatzeko gomendioak emango ditu, M.U.k eginkizun hau nola betetzen duen azalduz. Era berean, unibertsitatearen hezkuntza eskaintza aurkeztuko du.

**ARRASATE**

Biteri Ikastetxe Nagusia  
(Goi Eskola Politeknikoa)

**Maiatzaren 15a,**  
**asteartea,**  
**18:30ean**

[www.muni.es](http://www.muni.es)  
Tel. 943 71 21 85



## Arrazionaltasuna, bakearen eta ezkerrearen ahotsa

Zapatuan, Ezker Batuak mitina egin zuen Uarkapen.

Antton Karrera Gipuzkoako zerrendaburua, Javier Madrazo lehendakariagaia eta Julio Anguita izan ziren hizlari. Karrerak hasi zuen mitina, eta EB arrazionaltasunaren, bakearen eta ezkerrearen ahotsa dela esan zuen. Horrez gain, Javier Madrazok PSOeri eskumaren besoetan erori izana leporatu zion; halaber, PPren eta PSOeren arteko hitzarmena euren boto emateko ere

ulertezina dela gaineratu zuen. Baina, txalo zaparradarik handienak Julio Anguita idazkari nagusi ohiak jaso zituen. Espainiako faxismoaren aurka egin behar dela esan zuen. Haren esanetan, gaur egungo gizartea garai bateko Espainiako Inkisizioaren zantzuak bizitzen ari da. Gainera, hitz gogorak esan zituen PPren, EHren eta ETaren aurka. Lizarrako hitzarmenaren eta autodeterminazioaren alde ere egin behar dela gaineratu zuen.

## Ezker abertzalea, bakearen mezulari

EH ere ibili da geurean oraingo astean. Martitzenean, Seber Altube plaza lantoki moduan hartu eta mitina egin zuten Xabier Zubizarretak eta Arnaldo Otegi. Baina hasi aurretik, omenaldia egin zieten herriko preso senideei. Gero, Xabier Zubizarretak hartu zuen hitza, eta segidan Arnaldo Otegi. Otegi adierazitakoaren arabera, "inork ez dio emango irakaspenik ezker abertzaleari sufrimenduaren inguruan. Badakigu zer den eta ez

dugu nahi inorendako".

Bakea ere hizpide izan zuten mitinean, burujabetza eta autodeterminazioarako eskubidea bermatzen duen bakea hain justu ere: "Ezker abertzalea ez da gerraren mezularia; ezker abertzalea bakearen mezularia da, baina, hori bai, bakeak herri honetan izen-abizenak ditu eta bakearen izen-abizenak Euskal Herrian burujabetza eta autodeterminazioarako eskubidea dira".



## FORUM

KIROLA EGITEN DUGU

**Kirola grinaz bizi duzun hori, orain sar zaitezke proiektu handi batean FORUM-ek aurki ARRASATE-MONDRAGONEN irekiko duen dendarako.**

Hautatu behar ditu:

### ■ SAIL-ARDURADUNA REF.RSS

Bere espezialitako arloan, produktoak definitu eta ipintzeaz, prezioen segimendua egiteaz eta hornitzaileekiko harremanez arduratuko da.

Gazte dinamikoak nahi ditugu, kirolari ohikoak eta kirol munduaz ondo jantziak, erdi-mailako tituluaren jabe direnak eta Microsoft-en ofimatika-ingurunean erabiltze-mailako ezagutzak dituztenak.

Ezinbestekoa Euskera menderatzea.

### ■ DENDAKO SALTZAILEAK REF DTE

Eskaintza hau, kirol-artikuluaz asko dakiten gazte kirolariei zuzendua dago. Egun osoko edo egun erdiko lanaldia (Arratsaldea eta Aste bukaeran) egiteko prest daudenak.

Ezinbestekoa Euskera menderatzea.

Interesatuak utzi beren curriculum vitae FORUMen zentruan (Donostia/ Usurbil) Edo bidali zuen curriculum vitae-ak 186. posta-kutxara, honako datu hauekin:

Karnet-taminako argazki egin berri bat, NANen fotocopia, egidako ikasketak eta lanbideari buruzko datuak, harremanetarako telefonoa eta egin izandako kirolak, hauetan lortutako espezializazio-maila ere seinatuz posturako erreferentziako gutun-azalean.

**OHARRA:** Eskaerak jasotzeko azken data: 2001.ko Maiatzak 23an Hautaketa probarako alde aurretik aukeratutako pertsoneri telefonoz deituko zaie.

## KULTURA ASTE KOLORETSUA

Musakola Herri Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek Kultura Astea ospatu dute. Denetarikoko ekintzak izan dira: irakurketa, lantegiak, hitzaldiak, antzerkia... eta, jakina, elkarrekin ondo pasatzeko moduko jolasak. Aste oparo bezain koloretsua izan da, begi bistan dagoenez.



## ERREGINA ETA OHOREZKO DAMAK

Aste Kulturalaren barne, Corazon de Encina kultura elkarteak aurten go erregina eta ohorezko damak aukeratu zituen: Antonia Gonzalez, Vito Algaba eta Izaskun Caballero, hurrenez hurren, baina erregina ezin izan zen ekitaldira joan.



## HARREMANAK ESTUTUAZ

Idiomasterreko frantsesezko 3. mailakoak Kemperren izan berri dira, Kemper-Arrasate batzordeak gonbidatuta. Hiru egunez, Britainiako herriak, jaiak eta jende zoragarria ezagutzeko aukera izan dute. Harreman estu eta aberasgarriak izan dira. Haiek Arrasatera gonbidatzeko asmoa dute orain ikasleok.



**HIES  
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62



**BASATI  
TABERNA**

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711768

Aurreikuspen  
planak

EUSKADIKO KUTXA

"Ezaidazu nolakoa  
zaren eta zure  
Aurreikuspen Plana  
zein den esango  
dizut"

Aurreikuspen Plan  
MODERATUA

Aurreikuspen Plan  
MISTOA

Aurreikuspen Plan  
ALDAKORRA

Euskadiko Kutxan zure  
bizitza-estiloari ondoen  
egokitzen zaion  
Aurreikuspen Planari  
buruz aholkatzen zaitugu.

## EUSKADIKO KUTXAK

aurreikuspen  
planen eskaintza  
handitu egin du.

- **Euskadiko  
pentsioak**  
Gorabeherarik  
gabeko  
errentagarritasuna  
lortu nahi duten  
pertsontzat.
- **Euskadiko  
pentsio mistoa**  
Gehienez ere  
inbertsioaren %30  
errenta aldakorrean  
izatea aurreikusita  
dago.
- **Euskadiko  
pentsio aldakorra**  
Inbertsioak gehienez  
ere %40 errenta  
fijan eta %60 errenta  
aldakorrean egiten  
dira.

Posible da dirua  
batetik bestera  
aldatzea.

Zoaz gaur bertan  
zure sukurtsalera  
zure premiei  
hobeto egokitzen  
zaien planari  
buruzko  
informazioa  
Ojasotzera.



CAJA LABORAL

EUSKADIKO KUTXA

Erantzun  
zuzena

# Musakolako jaiak



**Egubakoitza, 11**  
(Jubilatuena eguna)

- |   |  |
|---|--|
| 10:00 Kanpai errepika eta etxafleroak                             | 19:00 Ikurrina jasotzea. Buruhandiak eta gaiferoak. Alkatetzatik gozokiak botako dituzte |
| 10:15 Umeendako kirol-jokoak, eskoletan                           | 19:30 Auzoko jubilatueendako jai-afaria, Kataiden  |
| 11:30 Umeen danborrada  | 23:00 Rock kontzertua: Offset, Iskanbila eta Des-Kontrol                                 |
| 16:00 Jubilatueendako mus, briska eta tute txapelketetako finalak | 00: 10+1 Wood-By-Ser   |
| 16:30 Jubilatueendako bolo txapelketako finala                    | 00:00+ beranduau ber-ta-tik  |
| 17:00 Umeendako askaria   | 00:00+ beraanduau ber-ta-ra  |

  
**HOSTAL  
MUSAKOLA**

Taberna - Jatetxea

Gipuzkoa Etorbidea z/g  
Tel.: 943 79 20 50

**MUSAKOLA**  
**estankoa**

Antxo Abarka, 6. Tel.: 943 79 17 57



**Estrella  
Taberna**

Elkano, 3  
Tel.: 943 79 20 82

**ILUNA  
taberna**



Elkano, 23  
Tfnoa.943 79 23 78

**BEVERLY**

Gipuzkoa Etorbidea, 9  
Tel.: 943 79 16 99

**KULTURA ELKARTEA**



Zigorola, 1  
Tel.: 943 77 03 28 (Elkartea)  
943 79 91 82 (Taberna)

**JEY  
JULIWER**

Elkano kalea, 36  
Tel.: 943 79 22 11



**HARATEGIA • URDAITEGIA**  
Maisu Aranbarri, 2  
Tel.: 943 79 29 14

**MENETA  
TABERNA**

zure etxean bezala

**IOSU  
KAFETEGIA**

Elkano kalea, 25  
Tel.: 943 77 03 66

**ZIORLA  
TABERNA**

Antso Abarka, 5  
Tel.: 943 79 20 46

# musakolako

**Zapatua, 12**  
**(Koadrilen eguna)**

**10:00** Buruhandiak eta gaiteroak

**11:00** Pilota partiduak

**12:00** Herri txikiteoa, soinu jotzaileekin.

Jubilatuen etxetik astoak irtengo du.

**Motozaleen kontzentrazioa**

**13:30** Urrezko Astokiloak eman eta jartzea

**14:00** Manifestazioa?

**15:00** Herri bazkaria San Isidron. Txartelak

salgai: Ziorla, Hostal, Meneta,  
Jey Juliver eta Txinatón.

**16:00** X. xake irekia, San Antolinen

**17:00** Herri kalejira. Arku-tiro

txapelketa, kiroldegian

**18:00** Sokatira sari nagusia

**19:30** Buruhandiak eta gaiteroak

**23:00** Berbena.



**Hiper Eroski, lehen denda • Arrasate**  
Tel. eta faxa: 943 79 76 03

**Sarrailagintza**  
Giltzak, urrutiko managailuak.  
Irekitzeak, jartzeak eta salmenta.

**Labanagintza**  
Aiztoak, labanak, artaziak. Salmenta eta zorrozketak.

**Konponketa**  
Oinetakoak eta aterkiak.

**Opariak**  
Diru-zorroak, oroigarriak, giltzakoak...



**Eroski merkatal gunea**  
Tel.: 943 77 19 54

**NEKER** c.b.  
Bainuak • Berogintza • Gasak

**Erakusketa**  
Elkano, 40  
Tel./Faxa: 943 79 89 67  
Tel. mugikorra: 629 49 00 24

**KORTABERRI**  
Harategia Urdaitegia



Antso Abarka, 3  
Tel.: 943 79 20 28

**ELECTRICIDAD MUSAKOLA**



Antso Abarka, 5 etxabea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 39 22  
Tel. mugikorra: 607 22 54 28

**ARRASATE Electricidad**



**INSTALAKUNTZA ETA MUNTATZE ELEKTRIKOAK**

- Argizatze profesionala
- Diseinuzko argizatzea

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77  
Gipuzkoa etorb. 37 • Tel./Fax: 943 79 65 93

**EGIA**



Iturgintza

**ERAKUSKETA:**  
Gipuzkoa etorbidea 39, behea  
ARRASATE • Tel.: 943 77 01 85

**IMANOL**



ITURGINTZA,  
BEROGINTZA, GASA

Kale txiki, 9 behea.  
Tel.: 943 79 05 95

**arregl@s**



- Arropa
- Larrua eta dama
- Puntua
- Soinekogintza
- Bordatuak
- Garbategia
- Errezelgintza

Eroski merkataritza gunea  
Tel.: 943 79 10 43

ARRASATE  
Maisu Arambarri, 1  
20500  
Tel. 943 77 14 14

DURANGO  
Ermodo, 11  
48200  
Tel. 94 620 30 37

Ohinezko - Gaztegia  
**BEROGI**  
Eroski Eroskietan



**Leniz**



**Motor**

Gipuzkoa etorb., 9 • Tel.: 943 79 11 78

**BASO, LORATEGI ETA NEKAZARITZARAKO TRESNAK**

**STIHL** **VIKING**

**MOTOR SALMENTA ETA KONPONKETA**

**PRENTSA TXOKOA**

Eroski merkatal gunea

**MEKA-HOTEL**

**EKOIZLEAK GARA**

Lanerako jantziak  
(Industria eta hostalaritza)  
Eskolako uniformeak  
Etxerako osagarriak  
Serigrafia eta bordatuak

Eroski merkatal zentrua  
Tel./Fax.: 943 77 19 44

# Jaiak

## Domeka, 13

- 11:00 Puzgarriak  
 11:30 Gimnasia erritmikoa  
 kiroldegian  
 12:30 Txikiteoa  
 17:00 Puzgarriak  
 18:30 Danzaldia  
 24:00 Azken iraka

## Martitzena, 15 (San Isidro eguna)

- 11:30 Meza Nagusia San  
 14:00 Isidron Baserritarren  
 bazkaria



**AGRIZENTROA  
OTXOA, S.L.  
BANAKETAK**

Haziak, ferreteria, drogeria,  
jardinerako tresnak eta etxeko  
animalientzat osagarriak

Musakola Industrialdea 2  
Tel.: 943 79 17 79



**BEGOÑA**  
Lurrindegia • Drogeria

Gipuzkoa etorbidea, 33  
Tel.: 943 79 03 73

**Antxo Abarka, 6**

ARRASATE



**79 69 99**



**Arrasate  
aretxabaleta  
INSTITUTUA**

*San Isidro jai zoriontsuak izan!*

Santa Teresa, 25  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 20 38  
943 79 44 47

Etxebarriz auzoa, z/g  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 79 00



García Ripa  
**ERREFORMAK S.L.**

Kale txiki, 3 ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20

Aroztegi metalikoa eta PVC  
Leihoak eta ixteak.  
Egurrezko aroztegia  
Leihoak, horma-armairuak, era  
guztietako zoruak, litzate eta  
barnizatua.  
Osagaiak  
Neurriko alfonbrak, gortinak,  
mahai eta aulkiak.



**HIPER EROSKI  
KAFETEGIA  
JATETXEA**

Eguneroko  
menua

Musakola Pol. z/g  
Tel.: 943 79 55 69

**J. Elorza**

Harategia  
Urdaitegia



Joan Bengoa, 1  
Tel.: 943 79 75 80

*Eskolan eta  
auzoan festa  
eta jai giroan...*

**Euskara  
beti ahoan!**

Elkano, 10 • Tel.: 943 79 04 49

# Cannabisa gero eta gehiago

Duela gutxi Kataluniako Legebiltzarrak marihuanaren erabilera terapeutikoa onartu zuen, gaixotasun larriek eragindako minei eta ondorioei aurre egiteko balizko sendagai moduan. Hori egiten den lehenengo tokia da Espainiako Estatuan, izan ere, berez, marihuana legez kanpoko drogekin batera dago sailkatuta, hortaz, delitua da edozein motatako erabilera ematea.

Legeak uzten duen erabilera bakarra norberaren kontsumorako da, eta betiere leku pribatu eginez gero (nor bere etxean). Edozelan ere, eta nahiz eta kontsumo propioa baimenduta egon, debekatuta dago cannabisa aldean eramatea, porro bat lagun bati ematea edo marihuanaren aldeko publizitatea egitea, esaterako. Hori guztia delitua da Espainiako Estatuko legearen aurrean.

Halaber, kalean, jendearen artean, ez dago batere ondo ikusita. Are gehiago, askorendako droga gogorra da cannabisa, gure osasunerako izugarri kaltegarria dena; eta, gainera, behin probatuz gero, droga gogorragoetara garamatzana: kokainara, heroinara eta antze-koetara. Baina poliki-poliki iritzi hori aldatuz doa.

## ZER DA?

Bi motatako landarea izan daiteke cannabisa: Cannabis sativa varietas vulgaris, propietate psikodisleptiko barikoa. ehungintzan eta papergintzan erabiltzen den kalamua da. Bestea, Cannabis sativa varietas indica, klima bero eta sikuetan hazten da. Landarea gutxiago hazten da eta erretxina sortzen du lehorketatik babesteko. Bereziki, landare emeak sortzen du erretxina hori, eta hainbat modutan kontsumi daiteke: haxix, marihuana... Izan ere, erretxinan dago

cannabisaren izaera terapeutikoa, erretxina horrek cannabinoidak ditu eta.

## SENDAGAIA

Geroago eta argiago ikusi eta esaten ari dira cannabisaren cannabinoidak sendagai egokia direla. 100 gaixotasuni baino gehiagori aurre egiteko gai dira eta antzina askotan erabili izan dira. Gaur egun ere, eta nahiz eta legez kanpoko izan, minbizia duten gaixoendako ezin hobea da cannabisa, kimioterapiaren ondorioz izaten dituzten goragaleari aurre egiteko, eta geroago eta gehiago erabiltzen hasi dira. Bronkioendako ere ezin hobea dela erakutsi du mendeetan.

## ASPALDIKO LAGUNA

Marihuana botika moduan erabiltzeko Holandako Institutuak (Institute of Medical Marijuana) emandako informazioaren arabera eta Historiak baieztatutakoa ikusita, marihuana edo cannabis landarea Kristo aurretik orain dela 3.000 bat urte erabiltzen zuten. Txinan, esaterako, Shen izeneko enperadoreak sendagaien artean sailkatu zuen marihuana Kristo aurretiko 2737. urtean. Asian ere garai berean agertu zen, eta geroago sartu zen Indian eta Ekialde Hurbilean. Europara Afrikatik etorri zen.

Sendagai moduan erabiltzen zen leku guztietan, batez ere herritarren artean, analge-



siko, topiko, espasmo kontrako, depresio kontrako, gosenaren bizigarri, antibiotiko eta asmaren kontrako sendagai moduan, besteak beste. XX. mende arte izan zen horrela. Gero, norberaren gozamenerako erabiltzen hasi ziren, bereziki, intelektualak. Eta 60 eta 70eko hamarkadetan modan jarri eta izugarri hedatu zen. Ondorioz, ilundu egin zen, ia desagertzeraino, cannabisaren sendagai izaera.

## ZEHARO TERAPEUTIKOA

Adituen esanetan, erabilera terapeutikodun drogarik seguruen da cannabisa. Sekula ez da inor hil marihuanaren eraginez, eta gaindosia gertatzea benetan zaila da (20.000:1); esaterako, errazagoa da alko-

holaren beraren gaindosia gertatzea marihuanarena baino. Gainera, orain dela 3.000 bat urtetik hona erabiltzen denez eta milioika lagunek erabili izan dutenez, marihuanaren bigarren mailako efektuak gutxi ezagunak dira, ez gaur egun erabiltzen ditugun sendagai gehienak moduan, horiek 10-50 urte bitarteko frogaldia besterik ez dute eta.

Buruko min simple bat sendatzeko erabil daiteke, eta baita minbiziaren ondorioei aurre egiteko ere. Adibidez, asma dutenen %80k 2-4 urteko bizi iraupena lortuko lukete ohiko botikak erabili beharrean cannabisa erabiliz gero. Epileptikoen %60ri ere komeniko litzaieke marihuana erabiltzea. Halaber, buruko minei



# erabiltzen da sendatzeko

aurre egiteko erremedio ezin hobea dela erakutsi du. Iker-tzaileek diotenez, Valium, Librium, Thoracine eta Stelacine moduko botiken erabile-ra %50 jaitsiko litzateke marihuana erabiliz gero.



## **PORROAK EDO AIZPURUAK**

Jakina, cannabis modu askotan kontsumi daiteke: infusioak, porroak, edozein jakitan (gailetak, pastelak...). Agian, gure artean ezagunenak porro-

**"OMEren arabera, mendekotasun psikiko ertain fuertea eragiten du eta ia ez du dependentzia fisikorik eragiten"**

Horrez gain, insomnioari aurre egiteko ezin hobea da, paraplegiko eta tetraplegikoei laguntzen die eta hiesdun gaitxo askok tentsioari, depresioari eta minari aurre egiteko erabiltzen dute, baita gosea pizteko ere. Pomada moduan, garauak, fibrosia eta fistulak sendatzen ditu.

ak, kanutoak edo aizpuruak dira. Cannabis tabakoarekin nahastuz (edo barik) egiten dira horiek, eta gero, jakina, erre. Askoren ustea da aizpuruak errez gero drogazale bihurtzen zarela. Eta errealtatea zeharo bestelakoa da. Osasunerako Mundu Erakundeak adierazitakoaren arabe-



ra, kalamu indiarak eta haren-gatik eratorritakoak mendekotasun psikiko ertain-fuertea eragiten du; ia ez du dependentzia fisikorik eragiten (ez du sortzen derrigor kontsumitzeko behar larrik) eta, gainera, uztea nahi izanez gero, samurra da: insomnioa eta sumingarritasuna eragiten ditu, baina astebetetz bakarrik.

Jakina, droga denez, droga guztiak moduan, toxikoa ere bada cannabis (betiko moduan, zelan erabiltzen den arabera), baina gaur egun eza-gutzen ditugun "droga bigun" asko baino arrisku gutxiago ditu.

Oro har, epe motzeko oroi-menean eragiten du, kontzentrazioa zaildu egiten du eta. Norberaren aditasuna ere moteltzen du eta oldarkortasuna edo agresibitatea samurtzen ditu. Horrez gain, siste-

ma nerbio-soan neurotransmisoreetan eragiten du, hortaz, aldatu egiten da burmuineko nerbio-kinaden transmisioa. Muskuluetako indarra gutxitu egiten da eta oreka ere galtzen da, apur bat. Hori guztia aizpurua erretzen den unean gertatzen da, ez gerora. Horrez gain, besteak beste, lasaitasuna, ongizatea, poz sentazioa eta berba eta barre egiteko gogoia sortzen dira.

### **Informazio iturriak:**

Institute of Medical Marijuana, Cañamo aldizkaria, Kalamudia Elkartea, Florezen *Farmacología Humana* liburua, eta ARSEC (Asociación Ramon Santos de Estudios sobre el Cannabis). ■

**Ubane Madera**

## Lagun arteko partidua



Oraingo zapatuan, errugbiaz gozatzeko aukera izango dugu, izan ere, Arrasateko mutilek lagun arteko partidua jokatuko dute Garagartzako zelaietan. Aurrean Hernani taldea izango dute, maila bat gorago diharduen taldea, eta arrasatearrek denboraldia aspaldi amaitu

zutenez, taldea zelan dagoen ikusteko aukera paregabea izango dugu. Hemendik eta denboraldi hasiera arte, etxeko taldeak adiskidantzako hainbat partidujokatuko ditu. Zapatukoa aurrenekoa izango da, hortaz, errugbizaleok badaukazue zer egin zapatuan.

## Azkenekoa ezin irabazi



Arrasateko saskibaloitaldeak denboraldiko azken partidua jokatu zuen Urdanetaren kantxan, baina Landerren mutilek ezin izan zuten irabazi. Partidua lehen zatiko joko txarrak erabaki zuen, eta beste behin ere, arrasatearrek nahi baino jokalarigutxiagorekin abiatu ziren. Bigarren zatian partidua goitik behera aldatu zen, eta etxekoek neurria hartu zioten aurkariari. Lehen zatian lorturiko aldea murriztea besterik ez zuten lortu. 76-74 izan zen emaitza. Denboraldia amaituta, hausnarke-ta egiteko ordua iritsi da, eta lehen mailan taldeak lan ona egin du. Datorren denboraldi-

rako etxeko taldean aldaketak izango dira. Lander Errastik entrenatzaile izateari utziko dio, eta Danel Ayastuik ere taldea utziko du. Horrenbestez, etxeko taldeak fitxaketak egin beharko ditu. Klubak eskerrak eman nahi dizkie taldea utziko dutenei, eta inoiz utziko ez duen horri ere, Eugeniori alegia.

### 3X3 Saskibaloitxapelketa

Eguna: maiatzaren 19a

Ordua: 10:00-13:00

17:00-20:00

Tokia: Laubide plaza

Izena ematea ikastetxeetan!

Antolatzaileak: Arrasate Sas-

kibaloit taldea eta Arrasate

Kirol Proiektua.

## Jokatzekoak

### FUTBOLA

#### • Lehen erregionala

Zapatuan, Atxabalpen

16:45ean Mondra - Elgoibar

#### • Lehen mailako gazteak

Zapatuan, Atxabalpen

19:00etan Mondra - Ilintxa

#### • Bigarren mailako gazteak

Zapatuan, Atxabalpen

13:45ean Arrasate - Urki

#### • Ohorezko kadeteak

Zapatuan, Atxabalpen

11:30ean Arrasate - Lengokoak

#### • Ohorezko infantilak

Domekan, Atxabalpen

12:30ean Arrasate - Reala

### ERRUGBIA

#### • Seniorrak

Zapatuan, Garagartzan

15:45ean Arrasate - Hernani

### ESKUBALOIA

#### • Kadeteak

Zapatuan, Almenen

18:00etan Arrasate - Tolosa

### PILOTA

#### • Herriko pilota txapelketa

Asteburuan Uarkapen



# URONDO


## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoa

- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

EGUN GUTXITARAKO  
AUKERA



Sartu 400.000 pta.,  
eta opari hau zerbitzatuko dizugu.



**Maiatzaren 7tik 25era bitarte,**  
altzairu heldoilgaitzezko 4 erretilu  
sorta bikaina eskura dezakezu.

Zatoz Arrasateko zeure bulegora eta **gehi**  
**ezazu 400.000 pta.tan** zeure kontuan  
edo libretan Maiatzaren 6an zenuen saldoa,  
diru-kopuru hori, gainera, **noiznahi guztiz**  
erabilgarri geldituko zaizularik.

**ARRASATEKO BULEGOETAN  
BAKAR-BAKARRIK.**



Bakarrik eskudiruzko edota beste erakunderen bateko txeke bidezko  
sarrerak onartuko dira.

Maiatzaren 7tik 25era bitarte edota izakinak agortu arte.

# Arrasate-Oñati krosa euskaraz



Bihar, zapatua, Arrasate-Oñati lasterketaren XIX. aldia jokatuko da. Urtero moduan, lasterketa Garibai pasealekuan hasiko da arratsaldeko sei eta erdietan. Aurten, gainera, *Euskaldunon Egunkariak* antolatzen duen Euskal Herriko herri-lasterketen txapelketaren barnean izango dugu Arrasate-Oñati lasterketa.

Lehenengo aldia 1983ko maiatzaren 22an jokatu zen, eta ordutik hona milaka lasterkaririk egin dute ibilbide hori. Orduko lagun koadrila baten ekimenez sortu zen herri-lasterketa, eta gaur egun, Laixan eta AED elkarteek antolatzen dute. Urtero legez, *Jantzi kirola euskaraz* lelopean egingo dituzte bi herrien arteko kilo-

metroak.

Ibilbidea aurreko urteko berbera izango da, Arrasateko Portaloitik abiatuz, Garibai pasealekutik Musakolarantz, gero Elorregin Oñatirako bidea hartzeko; Zubillaga, Santxolopeztegi, Garibai eta Goribar igaro eta gero, Otadui Zuhaiztia eta Kale Zaharrean barrena herriko plazara.

## Euskadiko txapelketan zortzigarren

Zapatuan, taldekako Euskadiko txapelketa jokatu zen Anotetan. Arrasateko atletek lan txukuna egin zuten, baina goiko taldeei irabaztea oso zaila da. 4x100 metroetako lasterketan Arrasate Kirolak taldeak bronzeko domina bat lortu zuen, eta jeneralean talde arrasatearra ondo aritu zen. Jonathan Perezek egun biribila izan zuen. Real Sociedad taldeko arrasatearrak bere marka hobetu zuen: 4'40eko jauzia egin zuen. Salto horri esker bigarren postua eskuratu zuen. Oraingo zapatuan, alebin mailako Gipuzkoako txapelketa jokatuko da Elgoibarren. Probak goizeko hamaiketan hasiko dira, eta Arrasatetik 12 atleta gaztek parte hartuko dute.

## “GAZTEEN EKIMENAK” XII. ARGAZKI LEHIAKETA

Lanak  
aurkezteko epea:  
**URRIAK 11**


### BI KATEGORIA

- A) Deba Goienero 13-17 urte bitarteko gazteak, taldean zein banaka.
- B) 18-35 urte bitarteko edozein

### SARIAK

- A) **kategoria:** (modalitatea bereiztu gabe)
  - 1. saria: 40.000 pta
  - 2. saria: 20.000 pta
- B) **kategoria:**
  - *zuri-beltzean*
    - bildumarik onena: 75.000 pta
    - argazkirik onena: 50.000 pta
  - *koloretan*
    - bildumarik onena: 75.000 pta
    - argazkirik onena: 50.000 pta

Emakume Sailaren saria: 50.000 pta



Argazkia: Santi Iglesias



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Salla ■  
Emakume Salla ■

Informazio gehiago eta arauak Gazte Bulegoan • Tel.: 943 77 00 65

## Emaitzak

Rayo Aldeano 1 - New Makai 0  
 Iriztu 4 - Irati STS 6  
 Abocajarro 5 - Etxerat 6  
 SasT 1 - DKB Kobate 0  
 AT Celaya 1 - EPEH 0  
 Full Duplex 6 - Txotx 8  
 Alai Gozokiak 1 - Frigel Gol 0  
 Pepelus.com 5 - Kamasutra 3  
 Usotz 3 - KJ Basati 8

## Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TXAP DRIBLING	17	14	1	2	101	36	29
AURRERA BOLIE	17	11	3	3	71	45	25
AC SURCOS	17	10	4	3	85	66	24
YK AZKENA	17	11	2	4	68	55	24
BIKAIN AKAD	17	10	4	3	96	60	24
KOM ALPARGAT	17	11	1	5	75	75	23
IKP	17	11	1	5	77	63	23
GOMA2	17	9	4	4	75	56	22

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IRIZTU	18	15	1	2	98	37	31
AT CELAYA	18	14	1	3	88	49	29
IRATI STS	18	13	1	4	113	66	27
ETXERAT	18	12	2	4	111	61	26
RAYO ALDEANO	18	12	2	4	114	59	26
PEPELUS.COM	18	11	0	7	72	61	22
USOTZ POTROAK	18	10	2	6	72	45	22
KAMASUTRA	18	10	3	5	89	53	21

### A taldea

Iriztu  
 Kom Alpargat  
 AC Surcos  
 Rayo Aldeano



### B taldea

Aurrera Bolie  
 YK Azkena  
 Irati STS  
 Kamasutra



### C taldea

Dribling  
 Bikain Akademia  
 Usotz Potroak  
 Pepelus.com



### D taldea

AT Celaya  
 Goma2  
 IKP  
 Etxerat



### BIGARREN ALDIRAKO PREST?

Hilabete partidurik jokatu barik igaro eta gero, oraingo asteburuan Zaldibarko bigarren aldia hasiko da, eta Lasagabaster eta AKTA taldeek, gutxiatik bada ere, ezin izango dute areto futbol txapelketako hurrengo aldia jokatu. Bestalde, aurreko asteburuan, New Makai eta DKB Kobatek ez zuten jokatu zegokien partidua, eta bi taldeek fidantza galduko dute. Lehen aldian, denera, zortzi talde kanporatu dituzte antolatzaileek, eta bi puntuko zigorrak ere izan dira. Bigarren aldian partidu gehienak zapatuan jokatuko badira ere, domekan ere pare bat norgehiagoka izango dira, hortaz, behin baino gehia-

gotan zapatuko parranda beste baterako utzi beharko da. Ikusiko dugu bigarren aldian ustekaberik gertatzen den. Beste barik, zorte on talde guztiei, orain hasten da-eta benetako txapelketa!

OHARRA: Antolakuntzak epaileak behar ditu bigarren aldiko partiduak epaitzeko. Sariak izango dira.

OHARRA: Antolakuntzak epaileak behar ditu bigarren aldiko partiduak epaitzeko. Sariak izango dira.

## Hurrengo partidak / 20. jardunaldia

### Maiatzak 12, zapatua Zaldibarren

10:50 Aurrera Bolie - Kamasutra  
 12:00 Iriztu - Rayo Aldeano  
 13:00 Irati STS - YK Azkena

15:50 Goma2 - IKP  
 17:00 Komando Alpargat - AC Surcos  
 18:00 Etxerat - AT Celaya

### Epailea

Antolakuntza  
 Antolakuntza  
 Antolakuntza

Antolakuntza  
 Antolakuntza  
 Antolakuntza

### Maiatzak 13, domeka Zaldibarren

11:50 Bikain Akademia - Usotz Potroak  
 13:00 Txapime Dribling - Pepelus.com

### Epailea

Antolakuntza  
 Antolakuntza



## ESTELLA ORTOPEDIA

Javier Estella, ortopediako teknikari tituluduna  
 Osakidetzarekin eta Lagun-Aroekin hitzartua

### Plantilak • Oinetakoak

- Oin delikatuak
- Diabetikoak
- Deformidadeak
- Umeentzat zuzentzailea



RPS 421/97

Matxiategi, 5 • BERGARA • Tel.: 943 76 19 63

X Ezkontzak

X Bataioak

X Jaunartzeak

X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak



P A R K I N A E T A T E R R A Z A

## BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA  
 Tel.: 943 79 24 58

# Berritasunak Musakolako jaietan



Hiru jai egun izango dira Musakolan: maiatzaren 11tik 13ra; hori, martitzena, San Isidro eguna, ahaztu barik, jakina. Jai batzordeak ohiko egitarau aberatsa prestatu du, eta gazte txokoek eta San Isidro elkarteak nork bere ekintza sorta lotu du, egubakoitz eta zapatuko. 3.500.000 pezeta inguruko aurrekontua izan dute.

Herritar askok diote Musakolakoak direla Arrasateko jairik girotsuenak. Ospe on horrek behera egin ez dezan, jai batzordeak hainbat berri-tasun aurkeztuko dizkigu aur-

tengo San Isidrotan.

## PUZGARRIAK ETA TIRAKETA

Alde batetik, lehenengo eskaintza aberastea lortuko da horrela. Hori gertatzen da, esaterako, umeendako puzgarri parkearekin; domeka goizean izango da zabalik. Eta, zertxobait helduagoak direnendako, arku-tiraketa probak egingo dituzte lehen aldiz Musakolan: distantzia ertaineko II. arku-tiro txapelketa zapatuan, kiroldegian, 17:00etatik 19:00etara. Gure

bailarako kirol eskaintzan bere tartetxoa zabaltzeko lanean ari den Arkulariak elkarteak antolatuko du txapelketa-erakustaldi hori.

## BAZKARIA, AUZOAN

Ez du lehenengo aldia izango, ezta gutxiagorik ere, zapatuko auzo bazkariak. Baina aurtentzen, dekoratuz aldatuko dute: jeneralean Kataiden egin izan den bazkaria San Isidro eliza ondoan egingo dute aurtentzen, eguraldiak ere hala gura izanez gero. Bestela, aterpean egingo da. Horren azalpena

auzo alkateak, Jesus Maria Apraizek, eman digu: "Kataide urruti samar geratzen zaigu auzokoei, eta zapatu arratsaldean giro ederra izaten denez, ez genuen hori hautsi gura". Hortaz, 13:30ean urrezko astokiloa zeini egokitu zaion jakin-mina ase eta gero, sabela ere ondo aseta uzteko moduko aukera izango da, auzotik mugitu barik.

## TXARANGA

Baina bazeuden baita gainbeheran zeuden ekintza batzuk ere, eta horiek desagertu egin dira egitarautik. "Lehen, domeka arratsaldean dantzaldia izaten zen, baina oso jende gutxi hartzen zuen. Hortaz, talde bat ekarri ordez, txaranga ekarri dugu. Bestalde, domeka eguerdian, Bikote-Maixa taldearekin txikiteoa izango da, lehenengo urtez", diosku Musakolako alkateak.

Bestelako ekintzei eutsi egin diete antolatzaileek. Horien artean, berebiziko osasunez jarraitzen du Musakolako jaien ikurrak: urrezko astokiloa banatzea eta baita elastikoen salmenta ere, astoaren irudiarekin.

**Hilbera kafetegia**  
 Uribarri Etorbidea  
 ARRASATE  
 Tel.: 943 79 22 70

**HIES BERRI**  
 Tel.: 943 79 26 99

**S. CARRASCAL S.L.**  
**Guk egindakoak:**  
 • Sukalde altzariak  
 • Armairu enpotratuak  
 • Trastelekurako armairuak  
**Fabrikari erakusketa**  
 Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
 Tel/Faxa: 943 79 01 82

**OSORIK PUB**  
 Ignazio Zuluaga, 4  
 ARRASATE

**PEUGEOT**  
 Salmenta eta zerbitzua  
**IBABE GARAJEA**  
**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
 Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**GORKA**  
**ILEAPAINDEGIA**  
**LUZAPENAK**  
**ORDUTEGIA:**  
 Astelehenetan itxita.  
 Asteartetik ostiralera:  
 09:30 - 20:00  
**Larunbatetan:**  
 08:00 - 14:30  
**SOLARIUMA**  
 Ferrerías, 35 ARRASATE  
 Tel.: 943 77 13 78

# Labeko Kobaren gaineko liburua aurkeztu dute



Lehenengo aurkezpena Donostian, martxoaren 13an, egin ondoren, joan den maiatzaren 10ean aurkeztu zen Arrasaten Labeko Kobaren gaineko liburua: *Labeko Koba -Euskal Herria- Hienak eta gizakiak goi paleolitikoaren hastapenetan*.

Aranzadi Zientzia Elkarteko bi kidek zuzendu dute liburu horren prestatzea, Jesus Altunak eta Alvaro Arrizabalagak, eta eurek aurkeztu zuten liburua; Xabier Zubizarreta, alkatea, ere han izan zen. Liburu horretan, Labeko Koban egindako indusketen ondo-

riok azaltzen dira.

## KOBAREN GARRANTZIA

Alvaro Arrizabalagaren hitzetan, Goi Paleolitiko oso gutxi landutako garaia da, eta Europako aztarnategi garrantzitsuenen artean dago Labeko Koba. Arrasaterendako ere garrantzi handia izango du, turismoari eta kultura zabal-kundeari dagokienez.

Bestalde, adituek erakundeen arteko lankidetzaren begibistan jartzen duelako azpimarratu dute Labeko Koba, Foru Aldundiaren eta Aranzadiren arteko lankidetzaren ezinbestekoa izan zelako hango lanak aurrera ateratzeko.

# 125.000 pezeta, San Juanetako kartelarengatik

Aurtengo San Juan jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du udalak. Arrasaten bizi edo erroldatuta daudenei zuzenduta. Irabazleak 125.000 pezeta jasoko ditu. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 25ean bukatzen da, 13:00etan. Kultura Sailera bidali behar dira lanak.

## OINARRIAK

Gura duen teknika erabil dezake artistak, eta honako baldintzak bete beharko ditu: 50 x 70 zentimetroko kartel bertikala egin beharko du, eta "2001 San Juan Jaiak Arrasate" testua nahitaez eraman behar du. Halaber, disketean aurkezteko aukera eman du udalak, DIN A-3 tamainako paperean inprimatua.

Aurkezpen moduari dagokionez, egilearen nortasuna azaldu barik eta atzealdean leloa dutela aurkeztu behar dira kartelak. Gutunazal itxian, lelo bera eta egilearen datuak adierazi beharko dira.

Saritutako lana udalaren esku geratuko da; aurkeztutako guztiakin erakusketa egin ahal izango da, eta berau hasi eta hogeita hamar eguneko epean, egileek saritu bariko lanak jasotzeko aukera izango dute.

# Kultura asteko egun onenak

Gaurtik hasi eta asteburu osorako, makina bat ekintza eta ospakizun antolatu du Extremadurako Corazon de Encina elkarteak, eta hauexek izango dira bere XI. kultura aste-ko egun emankorrenak. Ospakizun astea joan den domekan hasi zen.

Maiatzaren 11n, 19:30etik aurrera, eta zapatu eta domekan, 12:30etik hasita, hitzaldiak, Corazon de Encinako eta elkarte gonbidatuetako musika taldeen emanaldiak, lehiaketak, bazkariak, eta beste hainbat aukera izango dira,



elkarteko bazkide eta lagunen dako. Ekintza horiek guztiak doan dira, eta parte hartu gura duten guztiendako zabalik daude.

Bazkideek buru-belarri jardun dute kultura astea prestatzen: esaterako, egubakoi-

tzean, 23:00etan, *Puebla de las mujeres* izeneko antzezlan eskainiko du elkarteko antzerki taldeak; horrez gain, elkarteko abesbatza eta dantza taldeak emanaldiak egingo ditu, eta bazkide diren promes gazteek euren musikarako talentua erakusteko aukera izango dute, domekan, 18:00etan. Ez da hori gazteendako erakuslehiho bakarra: aste osoan, elkarteko kide Ivan Caballero margolari gazteak erakusketa izango du egoitzan, Francisco Mateos margolariarekin batera.



**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebendun hizkiak

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztiak eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 ▪ Tel: 943 79 48 77 ▪ ARRASATE

HEMENDIK AT! (MUSIKA TALDEA)

## «Kritikatzen duenak, askotan, ezagutza faltagatik kritikatzeko du»

Orain sei urte, Hemendik At! sortu zenean, arraro samar moduan hartu zuten askok. Orain, hiru disko atera eta gero, Ikerrek, Stellak, Albertok eta Edumek euren apustua sendotu egin dute. Zuzeneko emaldiak egitea gustuko dituzte, eta Arrasaten eman zuten horren eredu, joan den egunean Iturripen izan ziren-eta, San Pankrazioaren ospakizunen barruan.

— Dantzarako musika mota guztiak zaku berean sartzen dituzte askok. Zuenak zein etiketa darama?

— Eurodance eta europrogressive. Hirugarren diskoan, bestelako doinuak sartu genituen: industrialak, baladak, popa...

— Ausartak izan zineten Euskal Herrian dance talde bat sortzen...

— Bai, baina hori ez da guk bilatutako zerbait. Gustuko genuen musika lantzen hasi ginen, eta gure zaletasunari bidea ematea zen helburu bakarra.

— Hasieran, asko kritikatu zintuzte. Horiek iraganeko kontuak dira?

— Ez, oraindik entzuten ditugu iritzi txarrak. Kritikatzeko duenak, askotan, ezagutza faltagatik kritikatzeko du. Gure kasuan, dance musikaren inguruko irudiaren eraginez izan zitekeen: multinazionalen negozioa dela, kantari moduan agertzen direnak ez dutela kantatzen, musika ez dutela euren egiten... Baina hori guztia ez dela beti egia izan behar erakusten saiatu gara, eta uste dut, azkenean, lortu dugula musika jende askorengana hurbiltzea. Batez ere, gure zuzeneko bidez egiten dugu hori.

— Zuzeneko horiek konplexu samarrak direla komentatu izan duzue.

— Konplexuak baino, desberdinak dira. Alegia, gainerako taldeek ez bezala, guk ez



dugu gitarrarik, bateriarik... erabiltzen; teklatura bakarrik. Horrez gain, koreografiak, dantza eta antzerki moduko saioak eskaintzen ditugu. Argiekin ere asko jokatzen dugu, diskoteka itxura emateko.

— Euskal dance-aren aitzindariak izan zaretela entzuteak zer esan gura du zuek?

— Oso pozgarria da, zerbait berezia egin dugula adierazten du horrek. Hala ere, musika egiterakoan hori gogoan ez izaten saiatzen gara, gustuko dugun zerbait egiten dugu, beste barik.

— Eta dance musika egitea erraza dela esaten dutenei, zer erantzuten diezue?

— Eurak saiatzeko, hain erraza bada! Musika hau egiteko, besteak beste, behar diren aparailuak zelan dabilzan ikasi behar da, eta informatika jakin. Eta konposatzen ere jakin behar duzu, zaletasuna izan... Guk esaten duguna da bulegoko lanean ikus dezakegula ordenagailuak zein korapilotsuak diren; hortaz, lanerako korapilotsuak badira, musika egiteko ere bai.

«Azkenean, dance musika jende askorengana hurbiltzea lortu dugula uste dugu»

aste gazte

### ■ DIRULAGUNTZAK

• Guggenheimen praktikak egiteko aukera. Unibertsitate ikasleendako. Praktikak, bisitarrekiko arreta, argitalpen, hezkuntza, plangintza eta antolaketa, programazioa eta ikerketa, informatika sareen zuzendariorde-tzan egingo dira. Epea: maiatzaren 16a.

• Aleman, frantses eta ingeles ikastaroak atzerrian egiteko dirulaguntzak. DBH-ko bigarren maila, batxilergoa edo goi mailako heziketa zikloen ikasleendako. Gehienez, 19 urte beteta izan eta ikasturtean beken deialdi orokorreko bekadun izatea. Epea: maiatzak 20.

• Leonardo da Vinci programa. Europako enpresatan praktikak egiteko aukera. Ikasketak bukatu berriak izanik, lan esperientziarik ez dutenendako. Epea: ekainak 15.

### ■ LANA

• Bergarako udalerako enplegu dinamizatzailea behar da. Epea: maiatzak 14.

### ■ HEZKUNTZA

• Erdi eta goi mailako heziketa zikloak ikasteko, izena emateko epea: ekainaren 1etik 12ra.

### ■ LEHIAKETAK

• Kultura Saila. San Juan jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Formato bertikala, neurriak 50 x 70 zm. Derrigorrezko testua: "2001 San Juan Jaiak Arrasate". Epea: maiatzak 25.

• Emakume Sailak antolatuta, Komiki ez sistean IV. Lehiaketa. Formato bertikala, 2-4 orri bitarteko luzera, zuri-beltzean edo koloretan, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Epea: uztailak 20.

Argibideak:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65



# Hauteskundeak Arrasate Irratian

Bertan da dagoeneko maiatzaren 13a, EAE-ko hauteskundeen eguna. Komunikabide guztiek buru-belarri dihardute alderdien irizki eta aurreikuspenen jarraipena egiten. Arrasate Irratiak ere badu hauteskundeendako tarte. Urnak itxi bezain laster, 20:00etan, zuzenean jasoko dituzu bailarako emaitzen berri, Goiena Telebistak zuzenean egingo duen saio berezia, une berean, irratiz ere jarraitzeko bidea izango duzu eta, FMko 107.7an.

Baina domekan beharrean, astelehenean goizeko 9etan gurekin bat egiten baduzu, eguneko lehen albistegian, M13an gertatutakoa laburbilduko dizuegu.

Eta hori gutxi balitz, *Igo Autobusera* saioan, hauteskundeen ezkutuko aurpegia eza gutuko dugu. Horretarako, Gorka Etxabe GOITBko kazetaria izango da goizeko 10:15ean gurekin, Legebiltzarrean gertatutakoaren berri emateko. Mundu zabaleko komunikabideen artean, besteak beste, Japonia, Mexiko, Txekia, Costa Rica zein Europako herrialdeetako telebista eta prentsarekin batera GOITB ere, M-13an Legebiltzarrean izango da eta.

## Jon Arretxe idazlearekin berbetan



Datorren astelehenean, 10:30ak aldera, Jon Arretxe idazle bizkaitarra izango da *Igo Autobusera* saioan. Zazpi kolore liburuarrekin, Ostegunak eta Ostiralak eleberriekin izandako arrakasta gaitu du. Horiek

guztiak eta beste hainbat kontu ere jorratuko ditugu Jonekin.



arrasate  
irratia



### ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

### ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

### MARTITZENEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

### EGUAZTENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

### EGUENEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakutzen.

### EGUBAKOITZEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

### ZAPATUAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro ta zu.

## kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO  
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Maiatzak 17: Rosendo (2 sarrera)

Egun hauetarako **SARRERAK**  
zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren  
egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak: .....

Tel.: .....

Zein Kontzertu? .....

Bidalai gurera: Arrasate Press, Otalora 31  
edo deitu Arrasate Irratia: 943 71 17 31.

## Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak



- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia  
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

**ML**

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea  
(Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65



**M**ondragoen jairen batzuk ezagunak badira, Zigorrolakoak dira horiek. Eta asteburuan dute txanda. Horrexegatik, urte

batzuk atzera egin eta iragandako jai batzuk gogora ekarriko ditugu, 1963. urtekoak, hain justu.

Ikusten duzuen moduan, zerbait jaten ari dira gure protagonistak. Oso argi ikusten ez

den arren, letxuga da. Itxura denez, ziorlarren artean ohituraz inguruko ortuetatik letxugak "hartu" eta gero auzoko elkarteetan, San Isidron, elkartu eta jatea. Argazkian agertzen diran lagunak hauexek dira,

ezkerretik eskumara: Javier Etxebarria, Jesus Jimenez, Itziar Gabilondo (Bergarako bisitaria) eta Sagrario Lopez.

-----  
*Argazkia eta berriemailea:*  
Jesus Jimenez




# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# euskal herria

BOZKATU



Deportibo baten **2** eserleku dituzu.

Auto baten **5** eserleku dituzu.

Opel **Zafira** da bere mailan  
**7** eserleku dituen bakarra.



Opel Zafirak automobilaren kontzeptua bere osotasunean aldatu du. Kanpoaldetik, auto familiar baten tamaina berbera dauka. Barrualdean bizitasunez beteta dago, **7 eserleku** dauzka eta eserlekuok itxuraldatzeko aukera ugari ditu, zure familia eta lagunen beharretara egokitzeko. Opel Zafira, zure planak bezain malgua.



Opel **Zafira**. 7 aldiz malguagoa.

[www.opel.es](http://www.opel.es)

**OPEL CREDIT**



1, 2, 3, aukerak: *Beti auto berria edukitzeko modurik errazena.*

**OPEL**

**TALLERES OLA**

Olabarren auzoa z/g. Telefonoak: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

HELBIDE BERRIA: San Andres auzoa 10-D. Telefonoa: 943 79 05 86.